DAGONILLA
28
Barikua

Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA

Bilbao'kua	9,00	ŕiko.	iru il[e]
Bilbao'atazkua ...	11,25	"	"
Idazki-itunmena ...	62,00	"	urtez
Atzeŕijetakuak ...	112,50	"	"

Beldayen itunduba

XXIV urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.º | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.386 zenbakija

Gayak

"MORUAK" EUZKADI'N

Oŕa, oŕ, uskuŕtza-aldezliak azkenian ekaŕi dauskubena: Apirka'ko "moruak", benetako uskuŕtzearen ixenik be eztakijenak.

Elexa Deuna'ren semiak dirala diñuenak, baña, uskuŕtzearen onaŕen gudatuten dirala diñuenak, benetako Urtzi ukatuten daben mairuak Euzkadi'ra ekaŕi dauskubez, eta benetako uskuŕtza-aldezlien auŕka gudą odoltsuba egiten imiñi.

Karlataŕak, paziztak eta alkaŕekin batuta dabiltzan naste-boŕaste gusti oŕeik egin dabena ta egiten deraguyoena, benetako kistaŕak ez-eze, kistaŕ-ixena daruan iñok egin ezin leikena da.

Karlataŕak, baña, orixe be egin dabe: Euzkadi'ra, Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa aldeztuten daben agiriko kistaŕai auŕka egiteko, Apirka'ko mairuak ekaŕi dabez. Eta eurakin batera, lapuŕetea, erailketea, lixunkerija, lotsarik eza gaiztoki osua...

Eta egiñen itxusi gusti oŕeik eginda be, "katolikuak" dirala esango dabe, uskuŕtzearen aldezliak dirala, ta abaŕ.

¡ALPEŔIK, BAÑA...!

Egijari esijak imintzeko alegin gustijak egiten dabiltz. Egijaren ganetik guzuŕa ta parixetaŕen irakatsi ezeskaŕijak imintzeko, baztaŕ gustijetara eldu dira, ate gustijetan detu, Apirka'ko mairu'rañoko gustijak ekaŕi. ¡Alpeŕik, baña...!

Parixetaŕen alegin gustijak alpeŕiko alegiñak dira. Goiko Jauna'k, egi utza dan Urtzi'k, parixetaŕ deungien nasterik eztau ontzat aŕtuko. Gaiztetsi egingo dauz, deungetsi ta irabazten daben zigoŕpian imiñi.

Gixaŕtera gentzea ta zorijona ekaŕtiaŕen Gurutzą Deuna'ko erijotzea aŕtu ixan eban Josu-Kisto'k, gentza ta gixabide-era gustijen auŕka dagozan pazizten goŕoto-gurararirik, ezetara be ezin onetsi leikez, zuzentasuna berbera dan Josu-Kisto'ren Gurutza Deuna'k, egija ta zuzutsa baño besterik onesten eztabelako.

Goiko Jauna'ren zuzutsaren auŕka jagitia, alpeŕiko gauzea da, baŕiz. Goiko Jauna'k gixonen aŕtera Gurutza'ko erijotza-bidez ekaŕi euskun gentzearen auŕka gudea egiten Apirka'ko mairuak Euzkadi'ratutia be, alpeŕikua.

Oŕa, oŕ, arañegun goxian Irun-inguruetako gudaketa odoltsuban jazo zana. Apirka'ko mairuak auŕetik ebezela zuzutsari gudea egiten Irun'eratu gura ixan ziran pazizte bijozge ankeŕen gudarozte ixugaŕijak, gura ixan ebenik loŕtu ezinda, kaŕamaŕo-antzo atze-atzeka egiten.

Irun menpe aŕtu gura ixan eben... Eta Irun'en menpe geratu ixan ziranak, eurak, karlataŕak ixan ziran. Apirka'tik mandako-antzo gudarako alkilauta edo alogerian ekaŕi ixan dabezan mairuakin be, Irun'ik eztabe menpetu, ezta egingo be.

Etoyak etoi-bide gustijetatik oldaŕtuko dau, goŕoto-bide gustijak beragandu. Baña alpeŕik... Goiko Jauna'ren irakaskintza zuzenak guzuŕtituten dabiltzanak, bide-zijoŕetan galduko dira, eldutia gura daben lekura eztira elduko.

Maltzuzkeri gustijak egingo dabez, etoi-bide gustijetara jo... Alpeŕik, baña. ¡alpeŕ-alpeŕik...!

¿GUDEA ONA ETE...?

Gudea txaŕa da, ¡txaŕetan be txaŕa! Gudea egiteko zijorik eztago. Kistaŕ bidez gudarik ezin egin leike. Gitxijago, baŕiz, geidia norberen buruba lez maite ixan biaŕ dogun anaikidia menpetu, lau-bost gudalbururen izkilupian gixabatza osua jopututa imintzeko egiña.

Eta Josu-Kisto'k Bere Gurutza Deuna'ko erijotzeaz azke ixateko beŕerosi ixan eban gixabatza jopu-estuntzapean imintzeko Lateŕija'ren auŕka jagi ixan diran gudalburubak, matxinada au uskuŕtzea aldeztuteko egin dabela diñue. Asaldarijen jagunak diran karlataŕak be, alantxe esan dabe, ta mataza oŕetan nastauta dabiltzan pazizta gustijak be bai.

Asaldari oŕeik, antxiñako parixetaŕen jaŕaitzaile oŕeik diñuen ori, ¿zelan ixan ete-leteke?

Kistaŕ-irakaskintzeak gaiztesten dabena, uskuŕtza-aldezlia, ¿zelan ixateko? Elexa Deuna'k gudea gaiztesten ba-dau, gudeaz Elexa Deuni'k, ezin aldeztu leike. Beraz, Elexa Deuna'ren aldez; uskuŕtza deunaren onaŕen eta gixa-batzaren zorijonaŕen gudea egiten dabelą diñuen pazizta edo diralako oŕeik, euren agiriko guzuŕakaz eta parixetaŕkerijakaz argazkituten dira, burutik oŕetarañoko gustija argazkitu be.

Gudea txaŕa da, txaŕetan be txaŕa. Gudea egiteko zijorik eztago. Gudea egiten daben bijozgiei yaoken eran erantzuteko bai. Norberen eskubidiak aldeztuteko zijua beti dago.

Norberen etxera guda-antzo datoŕenari guda-antzo erantzuteko zijua, eztau iñok ukatuten.

"Iñorenari geldi lagako dautsazu"—irakatsi euskuben—; "baña zeure gauzea, ondo zainduko dozu."

Etą oraingo matxinada onetan eŕijak egiten dabeną be, orixe da: etxia zaindu, guda-antzo datoŕenari, guda-antzo oldaŕtu...

AZKENIAN BE, BAÑA...

Azkenian be, mairuak, eta mairuen gerixa ilunian ostenduten diran parixetaŕ iguingaŕijak be, euren asmo zitalą loratuta ikusi barik geratuko dira.

Mairuak euren mairu-eŕira itxuli biaŕko dira, emen sustrairik emoten, euzkotaŕak eztautse lagako-ta.

Lenago be, Euzkadi'n, mairuak ezeben sustrairik emon, euzko-luŕa mairuak sustraituteko gai dan luŕa ezta-ta. Queipo'ren amesak be, Queipo ezeskaŕijaren ames deunge ta iguingaŕijak irakuŕle, antzą dagonez, ezerezian geratuko dira.

Euren garaitzea bide zala amesak-ames egiten iñarduban baten, euzkotaŕokin gomutau zan, Queipo. Eta euzko-abendea madarikatuta gero, abenda gustija amaituko ebela, iragaŕi ei-eban. Euzkotaŕak banan-banan txaidera atarata, banan-banan erailgo ei-ebezan, ba, ta euren lekubak betetan, sevillataŕak eta abaŕ ekaŕi.

Oŕa, oŕ, kistaŕą dala, uskuŕtza-aldezlia dala, Elexa Deuna aldeztuten dabiltzanen aŕteko kenerala dalą ta ondijetan donetzat agertuteko gai dala ta abaŕ esango leuskiguen gudalburubak irakasteko gixabide berezija, kistaŕ irakaskintza bakana.

Bañą ez. Queipo'ren ames deungiak, ames-lekutik eztira iñora urtengo Euzko-abendarik eztau amaituko. Queipo'ren altasuną ori baño makalagua da, ori baño ezerezagua.

Euzko-abendea, irakuŕle, beste abendaen kutsuz kutsutu barik daguan euzkotaŕ bat bixijaz geratuten dan aŕtian ezta amaituko.

Euzko-abendea iñok amaitzekotan, geuk, euzkotaŕok, amaituko dogu, ta ez Queipo'k, ezta beste aren antzekok be. Euzko-abendearen ixatią gure eskubetan dago; euzko-abendearen giltza be geure eskubetan. Beraz, euzkotaŕa, abenda zoragaŕi au galduten ba-da, geuk gura dogulako galduko da. ¿Laketu egingo ete-dogu...? Benetako euzkotaŕak ba-gara, ez.

Apirka'ko mairuak euzkotaŕon auŕką Euzkadi'ra ekaŕi ixan dauskubez. Guda-antzo gogoŕ be gogoŕ oldaŕtu ixan dauskube. Azkenian be, baña...

IBON.

Azkatasunaren Ziñopeak

Alberdi'tar Mikel (G.B.)

Benetan samindu gaitu abertzale aundi onen eriotzak. Au jazo zanetik atsekabe aztunaren menbean egonik eztegu ezer idazterik izan. Ezpai-zezakean idazkortzak idatzi, itundasunez gainezka neukan biotza ixilik zeguan bitartean. ¡Ixilik eta noizpeinką begietara malkuei bultzatuz! Gure idazkortza biotzak diona alduan txukunen ingira aldatzen oitutą dago, ta egun auetan etzun biotzak, ingira ezin aldatualako itundasuna erakustea besterik egiten. ¡Mikel gizajoa! Ezin ziñisturik igaro giñuzen orduak eta orduak, baña, tamalez, egiaren indaŕak ziñistu erazi zigun. Izan ere ain gaste ta ain azkar utzi gaitu!

Beti alegindu izan zan abertzaletasuną gordin azaldu ta Sabin irakasleak irkatsitako bide zuzenari jaŕaitzen.

Eta lenagoko lanak gutxi etziralarik, matxinadą au sortu zanetik etzuan atseden aundirik izan. Etzan gizena; alaz gustiz ere zenbait anaztaki galdu zituan. Ez ordea makaldu. Esan zitekean gorosti makilaren antzo ximeldu ta gogortu egin zala. Zerbait ikertaldi zenbait itz pizkorgaŕi; toki gustietan ageŕtzen zan Alberdi jatoŕa. Gero bere asmo bikaña: "Euzko Gudaroztea". Izketaldiak; aurkako iritzį aztunik ezta azaltzen. Antolaketa lanak; bildu dira Loiola'n abertzaletasuneko gizon erantzupendunenetako batzuk eta gertu zeguan gastediari deitu diote. Azkenik eratu da. Asi da igitzen euzko-gudaroztea; ba'duaz taldeak mendira, ta ez juan bakaŕik, arerio zitalen ekiñaldiei bulartsu erantzun ere bai. Ezta berą atzenengotakua. Galzori-toki gustietan bere bulaŕa da areriuak lenengo ikusten dutena, ta buruzagi onen ausardia ikusirik beronekin duazen euzko-gudariak, Lartaun da bere guda-mutilen ondorenguak dirala adierazteko eran buŕukatzen dira Ernio-mendiko bizkaŕ eta egaletan.

Baña, nunbait, etzan guk naiko genduan aña ludi ontan irauteko jaio, ta sutunpaketa gogoŕena zan garaian eriotz-zauri batek, geiago ez jaikitzeko etzin zuan luŕean gure Alberdi maitia, azpian bigungaŕi garo ezkoa zuala tą bere odol garbiaz mendia goŕitzen dan bitaŕtean gorputz biurtzen da une batzuk lenago soin gaste zindo ta kementsu zana.

Il da, baña aintzatsu: euzko-seme zintzo baten diñakua izan du eriotza. Jainkoa'ren eŕukia berakin izan dezala.

卐 卐 卐

Ze irakaspide edeŕa denontzat. Auŕenengo suzko malan dabiltean gaste ausarditsu ta bikañentzat; auŕeagorako deitzen diguten bitartean, ondoren al gustiaz laguntzen gabiltzanontzat; eta baita ere une laŕi auetan bakoitzari dagokigun eginbeaŕetatik igezka dabiltzanentzat, ¡auentzako ez gutxien!

ARI GOTZON.

Matxinada -izparrak-eta

Asalda-txistu zolijaren otsa, atzo goxian entzun zan lenengoz uri onetan. Baña ez areyuen egazkiñen etoŕerea iragaŕteko, biaŕixana dagonerako, uritaŕak otu dagixantzat baño.

Txistubaren otsa, zolija ixan be-ta, Bilbao'gustijan entzun zan.

Iñortxu be ezeban bilduŕtu, baña, ezta urduritu be. ¿Zijua? Entzumenak otuteko egiñiko txistuba zalą jakiñen ganera gengozalako.

Baña txistuba entzuten laŕtxu otuten ba-gara, otu, aŕisku-aldijan be, eztautsagu lotsarik ixango, ta esakun zaŕak diñuana jazoko yaku: "aŕiskuba maite dabena aŕiskuban galduko da".

Esakun zaŕak diñuana orixe da. Eta egija be, esakun zaŕa daguan lekutik uŕun barik ixango da.

卐 卐 卐

Albania'n be, gudarijak asaldatuten asi ete-diranekua diñue.

Asaldatu ixan diranak, gudalburuben batzuk ei-dira. Eta euren matxinadea, Zogu bakaldunaren auŕką ei-da.

Guda-lagija jaŕi ei-dabe, ta gudari-agintari batzuk bai espe aŕtu be.

Albania'ko matxinada-anotsok, baña, ondiño osuan egiztu barik dagoz. Beraz, orañaŕteko izpaŕak, zuŕu-muŕuba baño eztira.

卐 卐 卐

Beste zuŕu-muŕu bat be edatu da. Zuŕu-muŕu au, Italia'tik yatoŕku, ta Hungria'ko bakaldun-ordezkua dan Horthy almirantiak Mussolini ikeŕtu ete-dabenekua diñosku.

Eta zuŕu-muŕu au, Horthy almirantiak Schuchsnigg eta Hitler'kin ixan eban alkaŕ-ikustia ixan eta gerokua ei-da.

Ganera, baŕiz, Italia ta Hungria'ren aŕtian dagon alkaŕ-maitetasuną ixanezkero, Horthy'k Mussolini'ri ikeŕtaldija egitia aŕitzekua ez ei-da.

Daną dala be, baña, lateŕi buru nagusijen ikeŕtaldijak — eta, euren zain dabiltzazanak, gaŕantzikotzat aŕtuten dabez, etą ludi-ziaŕ edatu.

卐 卐 卐

Romanones kondia Endaya'n aurkituten da.

Ondaŕeta'ko espetxetik azkatu eben, ba. Romanones'i, antza dagonez, espe eukiteko zojorik eztautse aurkitu ixan.

Romanones bere bixi gustijan, bakaldaŕa ixan da, bakaldaŕ agirikua.

Etą Romanones ixan dan lango agiriko bakaldaŕari, yaokan lotsea ixaten yako.

Primo de Rivera ditadoriaren aldijan be, Romanones, bakaldaŕa ixan zan.

Alan etą gusti be, baña, Primo ditadoriak zigoŕpian imiñi eban, eta txistu mingotz askotxu iruntsiazo.

Ikusten danez ba, bakaldaŕa ixatia eztau Eŕkala'k zigoŕtuten, bakaldaŕen ixenian aspi-sugiaren antzian Eŕkala'ren kaltez ibiltia baño.

卐 卐 卐

Barcelona'ko "Diluvio" izpaŕingijak, onu batzuk emoten dauz.

Gudea, guda-zelayan bakaŕik eztala egiten diño. Gudea, suizkilubakaz, begi-zuŕ eta entzumenak zoŕoztuta ibiltiaz egiten dala esaten dau.

Adizkide-antzo uŕeratuten diran guzuŕ-adizkide askotxu ei-dabiltz batian bestian. Eta batari au itandu, ta bestiari a aterazo, ziri-mirika auŕekuaren eskotu gustijak agertuten ei-dabez.

Oŕixek ei-dirą baŕiz, areyorik txaŕenak, kalterik geyen egiten daben guzuŕ-adizkide ta aspi-sugiak.

Eta "Diluvio" izpaŕingijak esaten dabenez, erdi ortik emetiko adizkide-antzeko ezaungiakangik, iges egin biaŕ da, edo areyo-antzo aŕtu, ta yaokan ordaña emon.

卐 卐 卐

Atzo aŕatsaldian, uri onetan Kortezubi'ko abeŕtzale bi ikusi genduzan: Astelaŕa'taŕ Andoni ta Uriaŕte'taŕ Iñaki. Bilbao'ko Gexo-etxera etoŕi ixan zirala esan euskuben. Uriaŕte'taŕ Iñaki'k ba, seme bat dauka, 1934'gko. matxinadan Asturias'en matxinadaŕak zauritua iltzat laga ixan eutsoen semia.

Uriaŕte'taŕ Iñaki'ren semia, aldi atan gudari ei-eguan. Orduko gudarijak gobernua aldeztuten eben. Eta gobernua aldeztuten ebilala, matxindaŕak zauritu egin ei-eben.

Nekezka baño ezpazan be, osatutzeko bat egin ei-eutsen. Baña bein be ez ei-zan ondo osatu.

Eta osatutzakua eginda gero be, irubidaŕ osatebakuntza baŕija egin biaŕa ixan ei-dau. Eta orain egin ixan dautsoenaz, baŕiz, laugaŕen osatebakuntzea egin dabela esan euskun mutil azaŕi oŕen aita naigabetubak.

Oŕa, oŕ, ba, Uriaŕte'taŕ Iñaki ta Astelaŕa'taŕ Andoni'ren atzoko Bilbao'ratutiaren zijua.

Laugaŕen osatebakuntza onek, ¿osatuko ete-dau, osatu? Olako bat ba'litz, asko poztuko gintzakez.

Matxinadeak dakaŕzan ondorenak oŕixek dira, irakuŕle. Zauritubak, erailketeak, negaŕa ta zoritxaŕa. Eta gustija, gixonen alkaŕ uleŕtu eziñagatik, gixonen aŕokerijagatik.

Oraingo matxinadą onetan be, seme edeŕik asko zaurituko da, seme kutunik asko il be. Bakotxak beriak ondo ezagutuko dauz.

Uriaŕte'taŕ Iñaki'k be beria alantxe ezagututen dau. Eta ezagututen dabelako, bai maitatu be.

Eta maite dabelako, Gexo-etxian aurkitzen dan lekura juan yako, ta antxe ikeŕtu be. Astelaŕa'taŕ Andoni'k lagundu dautsa.

Eta euren ikeŕtaldijan, Otxandijo'n zauritu ixan ziranak be Gexo etxian ikusi ixan dabez. Arein zaurijak ikusita, aŕituta geratu ixan dira, ¡Gudea dan ankeŕa!

Gaba, gabekuentzak...

Ipuña

"Bidetxin"go neskatil gaztia ta "Txingela"ko mutil gaztia txikitatiko aizkidiak ziran. Euren basetxe kutunak alkaŕen ondo-onduan egozalako, umearoan eta gaztaroan jolaskidiak ixanaz, betiko ezagunak ziran.

Eta, "Txingela"ko mutilak bere auzokide maitiari "ik egiñiko taluak jango neukezan" esan eutsonian baŕiz, ataturiko neska-mutilok alkaŕen senaŕ-emaztegei egin ziran.

Ordutik auŕera, euren aizkidetasuna getubaz joyan, geruago ta aizkidiago... igandietan batez be...

Igandietan eŕiko enparantzan euren lagunokaz batian edeŕto baten jolastuta gero, iluntzijan "aguŕ-maritakuen" kanpai-otsian, uŕengo igandeaŕte plazia bertan-bera itxita, etxerako bidian arpegi alaiz jaŕten ziran.

Enparantzatik ordu onez aldenduten ziran aŕen, baña, gure gastiok, euren etxietara ain ordu egokijetan be etziran elduten. ¡Ezta uŕik emon be...! Bidian "kontu-kontari" baŕiketaldi emonda gero etxeratuten ziran.

Igande baten, beti lez, eŕomerijan jolastuta gero, senaŕ-emaztegeyok, gabaren altzo ilunian bide-kurutze batera (lau bide egozan lekura) eldu ziran.

Eta antxe, lau-bidien erdi-erdijan eguan aŕmokil andijaren ganian jezaŕita ziralarik, au, tą ori ta bestią esanagaz, beste igandietako gabetan lez "kontu-kontari" asi ziran.

Bitaŕtian, zeruan ixaŕak kiñu politak egiñaz goya dirdiką baten egoan. Gaba ilun-samaŕa zan; iretai-antzo agertzen zan ilargijak argi epela egiten ebalako.

Onetan, ipaŕ-axiaren ots bigunaz batian, bide-kurutzetik, neska-mutilen ondo-ondotik, gauzą miragaŕi bat igaro zan.

Neskia, euren ondotik zegozer igaro zala uaŕtu ebanian ikaraz jaŕi zan. Mutilak, ostera, ezeban ezer ikusi ez oaŕtu.

—Ontxe, ontxe emetixik ingurutik bate-bat oinkada-ixilez igaro dala esango neukek...—neskatiliak, bertatik igaro zaną zer ixan ete-zeinkianentz, senaŕgeyari abotsą dardarez esan eutson.

—¡Bai zera, zereko zera...! Olakorik uste ixatią be...!—mutilak baŕeka erantzun eutson; eta baŕe destañez jaŕai eban esaten: —Zuek emakumiok, zeuen begi zoliz axia bera be ikusiko zendukie...

—¡Bai, bai... zeozer igaro dok... Ango edo emeko, "ixen-bakoen" bat baño ezpadok be zeozer igaro dok beintzat...—baŕirokuan neskatiliak gogoŕkiro iñuan—. Aingeru-jabolia edo ixan ete dok...? Bera igarotian ba, aŕeunaren (sediaren) "fra fra" otsaz batian "pla pla" ego-ots miragaŕija entzun yuat-eta... ¡Ene, zer ixan dan eta zer ixan eztan bagenkik...!

Eta, ori esanikuan, neskia, esku bijak bekokiratuta oldozkoŕ jaŕi zan.

Mutilak, orduan be, baŕe ta baŕe egin eban.

Gerotxuago baŕiro be axe-otsagaz lengo "gauzea" igaro zan. Orduan baña, itzalkiro, bilduŕgaŕiro itz-egin eban.

"Gaba, gabekuentzat... eta ez neskatilentzat... Gauŕkua naiko, uŕeguan damuko..."

Olako itz bakanakaz, gaste bijak geldutą geratu ziran. Eta ixu-ikaraz berialą zutunduta, geyago berba egiteko adorerik ezebela euren etxietara arinka juan ziran.

Astiaŕen baŕuan baña, euren bildur-ikarak ziaro ayenatu ziran. Eta uŕengo igandian be, senaŕ-emaztegayok, enparantzako eŕomerijan ziran.

Orduko iluntzijan be, gure-aña dantza egin ostian, "aguŕmaritakuen" otsaz batera enparantzatik aldendu ta, bide-kurutzeko aŕmokil andijaren ganian bilduŕik arian be ezebelą "kontu-kontari" jaŕi ziran.

Oŕetan egozalarik, alako baten, "Gaba, gabekuentzat..." didaŕą baŕiro entzun eben. Eta didaŕa entzun ebenekoxe, mendi-goyenetik, zezen bat ageŕtu zan. Zezena baltz-baltzą zan. Eta, zezen itxusi arek, "Txingela"ko mutila, topekada eŕime bat emonda, konorte barik luze jaurtin eban. Eta "Bidetxin"go neskią baŕiz, adaŕ-aŕtian aŕtutą beragaz mendira eruan eban.

Bijaramonian, eŕiko jentiak, mutila bide-kurutzian konorte barik aurkitu eben. Etą eŕuki andiz berialą etxeratuta, bere senera ekaŕteko alegiñak-alegin egin ebezan.

Senerą etoŕiko bazan etoŕi, bulaŕian ikatz zati bat imiñita gero, berakatzezko igortzi senduak emon biaŕ ixan eutsoezan.

Konorterą etoŕi zanian baŕiz mutilak, eurari jazorikua zietz-zietz edestu eutsoen.

Gustiją jakin ebenian, auzokide batzuk "Bidetxin"go neskatiliaren bila juan ziran. Eta ibilijak-ibili eginda be, bere aztaŕenik iñun be ezin ixan eben aurkitu.

Neskatila barik etxerantza etoŕtzala, bide-kurutzeko aŕmokilian eguerdiko eguzkitan neskatila (ezezaguna bera) edeŕ-edeŕ bat, uŕezko goruaz zidaŕezko ari-meya egiten iñardubala aurkitu eben.

Bera ikustian, euretariko batek, esan be egin eban.

—¡Au neskatiliaren edeŕa!

Eta, neskatilą ezezagunak, ori entzunik, eurekana begijak jasota iŕi baŕez ta itunez esan eutsoen.

—Neskatila edeŕą ta garbija ixateko, gaberdiko ilargitan barik, eguerdiko eguzkitan, au da, egun-argitan ibili biaŕ da, baña... "Bidetxin"go neskiaren bila, oŕtik ziaŕ alpeŕ-alpeŕik zabiltzaze... A, galdu zan betiko... "Gaba, gabekuentzat... eta... ez neskatilentzat..."

MAÑARIKO

Elburubaren indarra

Ze zoritxaŕduną zaran Euzkadi, ene Ama maite-edeŕa! Zeure gomuteak odoletan dimist bijotza. Iru seme gaste, maitati, adoretsu ta leyalak erail dautzuz zeure betiko arerijo ankeŕak! Ezin maitatu zaituguz, Ama, zeu maitatutiaz, iraña dagitsogulako zeure arerijuari. Ze zoritxaŕa!

Bañą alpeŕik dabiltzaz geure arerijo zitalak. Ez dau bere gurari deungarik lortuko. Gixa-bijotza maitatuteko egiña da tą euzkotaŕaren bijotzetik euzko-maitasun lorea uŕatu gura dabenak... euzko-bijotz gustijak, banaka-banaka marguldu biaŕko dauz.

Elburubaren ituŕi ugarijak busti ta aberastuten daben euzko-bijotza ilezkoŕa da; onetariko bijotzak, ilda be, taupadaz jaŕai oi-dau ludijon; bere odol goŕija abertzaletasun azi ugarija da. Sabin geure Irakasle gurena il zan; oŕaitiño taupadaz dakusgu bere bijotz sutsuba bere irakatsį gustijetan; Sukaŕieta'n bakaŕtasun otzaren magalean ił zan eta gauŕ bere maitatijak dira euzko-bijotzik bikañenak.

Jaungoikua eta Lagi-Zaŕa elburubak Sabin'aren bijotza argitu ebanetik geyago, bere ixate, bere ogasun, bere lan etą bere bixija Euzkadi Ama'ren oñetan opaldu ebazan. Elburubaren indaŕa!

Eta jakiña gabaren ilunpian argi-gosez danak, egun-sentiko eguzki-argijari bijotza zabaltzen dautson lez, euzkotaŕok be oŕetaraxe zabaldu dautso bere bijotz kikilduba argiz aseta Sabin'ak agertu dautson elburubari. Eta nok zuzitu gauŕ euzko-abeŕtzaletasuna? Nok...? Erijotzak...? Espetxeak...? Naigabiak...? Txirotasunak...? Ez erijotzeak, ez espetxiak, ez naigabiak, ez txirotasunak, ezek bez. Euzko-abeŕtzaletasuna erail eta sustraiz zuzitu gura dabenak euzko-endea zuzitu ta ezeztu biaŕko dau. Euzko-bijotz bat ludijon dan aŕtean ezta euzko-abeŕtzaletasunik galduko Euzkadi'n.

Elgezabal, Kortabaŕia tą Estabilo iru euzko-seme leyalen odolez goŕitu dau geure betiko arerijuak euzko-luŕa. Ez dauz ikaratu iru ziñopok erijotzaren aurpegį azuŕtzuak. Espanetan iŕi baŕia begijetan maitasun gurarija ta bijotzean abeŕtzaletasuna-ta, il ei-dira. Elburubaren indaŕa!

Zek adoretu dauz 'ru abeŕtzaliok? Elburubak. Nun edan dabe adore ikusgaŕioi iru abeŕtzaliok? Elburubaren ituŕi ugarijan.

Onako gastedijaren jabe dan Abeŕija ezin il da betikotasunaren sustraiz alikatuten dalako. Kisto gurutzatubaren antzera, Euzkadi Golgota-mendiko bidę zidoŕ aŕitsuba igon biaŕian aurkitzen da. Nekaldijoŕek edeŕtu, joritu, azkatu ta zorijon-zelai loratsura eruango dau.

Bitaŕtian biaŕkun bi doguz euzko-abeŕtzaliok: Geure ilen-aldez otoi egin eta euzko-bijotzak jeltzaletu.

Emon egijezu, Jauna, atseden betikoŕa Alberdi, Elgezabal, Estabilo, Kortabaŕia tą eurak lez Euzko-Azkatasuna aldezten il diran euzkotaŕai eta argitu bediz argi ilezkoŕak!

MAITE
(E. A. B.)

¿Quiere Vd. comprar
Un piano
Un mueble
Un automóvil
de ocasión?
Vea Vd. los "ANUNCIOS PEQUEÑOS' en anteúltima página. Si no lo encuentra, ¡anúncielo!

PRIMERAS COMUNIONES

Adquirir el magnífico devocionario en euzkera

JOSUTXU

De venta en Juventud Vasca de Bilbao y librerías.

Pedidos a Secretariado General Vasco.

Precios:

Encuadernación en cartoné	3	pesetas
" " tela	3	"
" " piel	7,50	"

Mendi-lora

Oŕaŕ esnaleak kukuŕuku.
Txori kantariak txiruliru.
Goizaldian,
Baseŕian,
Ta, zenbatzu amets kolkoetan!..

Jaikiz, etxekojauna kortara.
Etxekoandrea sukaldera.
—Urdin edo beltz
Ametsak amets...—
Gazteak landara loramiñez..

Edeŕ dira mendiok, bioztl.
Augatik emen ainbeste egazti..
Bakezaliak
emen kabiak.
Ementxe naiko ezti... biotzak.

Izakį bakoitzak bere kanta,
Izadiak, beŕiz, bere lora.
Orok aarai...
Guk ere bai.
Ta. maitasun-lorak ere, nunai..

Begira an goiko beizain ari:
Neską gazte bat bertso kanta[...]
Eta, kantuan,
zer diñuan?...
¡Zer esango ba, lora aroan...!

Soloetan, beŕiz, sendi osoak.
Beso aunatuz... —arin gogoak...
Ixerdiz luŕ ezo?
Arnariak gozo.
Augatik edeŕ ogi ta arto..

Apalondoan otoitzak Gora,
Sukalde kearekin batera.
Baseŕitaŕak
Zerutaŕ zuŕak.
Augatik Zerurantz mendigara[...]

Birao-loi bageko euskera.
Lizunik bageko bizikera.
Mendi goietan.
Baseŕietan.
¿Ote, ainbeste edeŕkun kaleta[n]...

EREN[...]

Aberria'[...]

Oyu kementsu gudalariak
itzartu dabez, zure semeak,
ta jagi dira asaŕaturik
zure estuntzak, apurtu nairik.

¡Abeŕi laztana! ¡Abeŕi maite!
¡Gora biotza! ¡zutundu zaite!
leortu bediz zeure begiak
malko eŕugez, lausoz beteak.

Alaitu bedi zure gogoa,
gogo berezi, gogo zindoa.
eta jaŕirik eskubidean,
aurkeztu zaite, ludi auŕean.

Aurkeztu zaite, aintzaz ja[...]
endeŕi zaaŕen amon garbia,
eta erkaba deunen antzean
ezaŕi zaite, zeure aulkian.

Ez dozuz ama, pozez ikust[en]
seme zindoak zeu aldeztuten?
zeu autortuten, zeu goraldu[ten]
abes gozorik, ezdozu entzuten?

Ezdozu ikusten etsai auŕean,
gudari anker, izkilu pean,
zelan direan garale jausten,
erale alde, otoi egiten?

Euren gogoak zerura igoten,
¡Ama laztana! ezdozu ikusten?
ta erion daben odolgarbia,
ezdozu ikusten, aintzaz ernea?

Gertu egizuz gaur burestun[ak]
abarloratsu ta margodunak
burestuteko seme kutunak
Elgezabal, ta aren lagunak.

Iraŕi beikez euren izenak
odoldun izkiz, zeure kolkoan
euzkotar seme, zindo diranak,
darabilezan beti gogoan.

Eŕenteria'taŕ Gor[...]

Euskeltzaleen Or[...]
Saltzalientzat
Lko. BAT
Saneurri berezia'
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - [...]

Irakurri EUZK[...]